



Lasarte-Oriako Udalaren Aurrekontuen partaidetza-prozesuaren baldintzak

0. SARRERA

Lasarte-Oriako Udalaren aurrekontuetan berriaz horrela zehaztuta etorriko den kontu-sail bat herritarren partaidetzaren bidez esleitzeko prozedura zehaztea da agiri honen helburua.

Bertan zehaztuko da nork eta nola aurkeztu ditzakeen proiektuak, zein diren proiektuen balioespenerako irizpide teknikoak, herritarrei kontsulta egiteko moduak eta abar.

1. PARTE-HARTZEA

Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesu honetan Lasarte-Orian erroldatuta dagoen adin nagusiko edozein pertsonak edo Lasarte-Oriako Udalaren elkartean erregistroan inskribatuta dagoen edozein elkartek parte hartu ahal izango du.

2. BALIOESPEN ETA ESLEIPEN BATZORDEA

Proposamenak teknikoki balioetsiko dituen batzordeko kide izango dira, batetik, Ogasun Batzordeko kideak, ordezkaritza politikoko gisa eta boto haztatuaren jabe direla, eta bestetik, udaleko teknikariak, gutxienez ondorengo hauek: kontu-hartzailea, idazkaria, hirigintza saileko teknikaria eta herritarren partaidetza saileko teknikaria, azken honek idazkari gisa jardungo duela. Ogasun Batzordeko lehendakari-karguaren jabe den pertsona beraren esku egongo da hemengo lehendakaritza.

3. PROPOSAMENEN EREMUA

Proposamenak Lasarte-Oriako udalerriri eta/edo bertako biztanleei zuzenduko zaizkie. Proposamen-kopuruari dagokionez ez da mugarik egongo herritarrentzat edo elkarteentzat.

Proposamenak Udal eremu eta eskumenen barrukoak izango dira. Horien kokapena eta lurralde-eremua definitu beharko da, baina udalarena izango da horren titulartasuna, edo gutxienez, ez du titulartasun pribaturik edukiko, eta erabilera eta sarbide libre eta publikoa izango du.

4. PROPOSAMENEN AURKEZPENEA

Proposamenaren aurkezpena memoria baten bitartez egingo da, eta bertan, proposamenaren ezaugarri nagusiak jasoko dira, eta gutxienez: proposamenaren izenburua, proposamenaren aurkezlea eta harremana, deskribapena, nori zuzendua dagoen, gutxi gorabeherako aurrekontua eta aukeran egongo diren beste datu batzuk.

Proposamen horiei sarrera eman beharko zaie Udal Erregistroan, edo bestela, modu telematikoan, participacion@lasarte-oria.eus edo partehartzea@lasarte-oria.eus helbide elektronikoetan, fase honetarako adierazitako epea amaitu aurretik.



5. PROPOSAMENEN ONARPENA

Aurkezten diren proposamen guztiek ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Proposamena Lasarte-Oriako udalerriri eta/edo bertako biztanleei zuzenduko zaie.
2. Proposamena Udal eremu eta eskumenen barrukoa izango da.
3. Indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian gauzatuko da proposamena, eta ez ditu hurrengo ekitaldiak lotuko.
4. Proposamena zehatza, mugatua eta ekonomikoki ebaluagarria izango da.
5. Aurrekontuetan zehaztutako kontu-sail berezian erabakiko da horren gehieneko zenbatekoa.
6. Proposamenak ingurumen-eragin positiboa edo ezdeusa edukiko du.
7. Proposamena ezin daiteke diskriminatzailea izan inorekin genero, arraza, adin edo bestelako arrazoiengatik.

6. PROPOSAMENEN BALIOESPEN TEKNIKOA

2. puntu zehaztutako Balioespen eta Esleipen Batzordeak egingo du proposamenen balioespen teknikoa. Balioespen horrek 50 puntu balioko ditu gehienez.

Balioespen teknikoa ondorengo epigrafeen arabera egingo da:

- a) **Estrategikoa eta Jarraitua** (6 puntu gehienez).

Proposamenak hurrengo urteetan jarraitasun, iraunkortasun eta eragin bat izateko aukerak ditu.

- 0 urte eta 1 urte artean: 0 puntu.
- 1 urte eta 5 urte artean: 1 puntu.
- 5 urte eta 10 urte artean: 3 puntu.
- 10 urte baino gehiago: 6 puntu.

- b) **Sozialki Zuzena** (6 puntu gehienez).

Proposamenak biztanleriaren ehuneko garrantzitsu bati eragiten dio.

- Biztanleriaren % 0 eta % 25 artean: 0 puntu.
- Biztanleriaren % 25 eta % 50 artean: 1 puntu.
- Biztanleriaren % 50 eta % 75 artean: 3 puntu.
- Biztanleriaren % 75 eta % 100 artean: 6 puntu.

- c) **Eskuragarria eta Solidarioa** (8 puntu gehienez).

Proposamena premia handiena duten biztanleei edo udalerriko eremuei zuzendua dago:

- (1) Udalerrian premia handiena duten biztanleak (4 puntu gehienez): Adintaldeak (haurrak, gazteak, adinekoak), ezinduak (fisikoak, psikikoak edo sensorialak), aukera gutxien duten kolektiboak (langabetuak, immigranteak, gutxiengo kulturalak), eta abar.

- Esku-hartzea ez da beharrezkoa: 0 puntu.
- Esku-hartzea beharrezkoa da: 1 puntu.
- Esku-hartzea garrantzitsua da: 2 puntu.
- Esku-hartzea premiazkoa da: 4 puntu.

- (2) Udalerrian premia handiena duten eremu eta inguruak (4 puntu gehienez).



- Esku-hartzea ez da beharrezkoa: 0 puntu.
- Esku-hartzea beharrezkoa da: 1 puntu.
- Esku-hartzea garrantzitsua da: 2 puntu
- Esku-hartzea premiazkoa da: 4 puntu.

d) **Bidezkoa eta Berdintasunezkoa** (3 puntu gehienez).

Proposamenak aukera-berdintasuna eta tratu-berdintasuna bultzatzen du emakume eta gizonen arteko harremanetan. Partaidetza, erantzukizun partekatua eta emakume eta gizonen presentzia orekatua indartzen du. Kontuan hartzen ditu kontziliazio pertsonalaren beharrak (etxeko lanak eta zainketa-lanak banatzeko orduan dauden genero-desberdintasunak). Emakumeen ekarpenak ikusgarriago egiten ditu. Baterako hezkuntza sustatzen du. Beste batzuk.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 3 puntu.

e) **Integratzailea eta inklusiboa** (3 puntu gehienez).

Proposamenak herritarren parte-hartzea eta artikulazioa bultzatzen du. Herritarren egitura autonomo, parte-hartzaile eta konprometitu bat sortzea errazten du. Udalerriko sektore eta gizarte-talde desberdinen arteko komunikaziorako eta koordinaziorako eremuak eta bideak indartzen ditu. Udalerrian demokrazia parte-hartzailerako ekimenak edo eremuak sustatzen ditu.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 3 puntu.

f) **Heziketa eta prestakuntzaren bultzatzaile** (3 puntu gehienez).

Herritarren ikaskuntza eta prestakuntza-prozesuak bultzatzen dituzte proposamenek. Udalerria garatzeko beharrezkoak diren gaitasunak (jarrerak, trebetasunak eta kontzeptuak) eskuratzen laguntzen du.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 3 puntu.

g) **Euskara. Hizkuntza-normalkuntza** (3 puntu gehienez).

Proposamenek hizkuntza-normalkuntzarako prozesuak errazten dituzte hezkuntza-prozesuen bidez, eta udalerriaren eta/edo biztanleen egunerokotasunean txertatzen dute euskara.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 3 puntu.

h) **Eragina Hirugarren Sektorean** (5 puntu gehienez).

Proposamenak Lasarte-Oriako merkataritzaren eta ostalaritzaren gaineko eragina areagotzen du. Beraz, eragin negatiboak (kaltegarriak) eta positiboak (onuragarriak) izan ditzake horrek.

- Eragin negatiboa: 0 puntu
- Eragin ezdeusa: 3 puntu
- Eragin positiboa: 5 puntu

i) **Ingurumenaren iraunkortasuna. Ingurumen-eragina** (5 puntu gehienez).

Proposamenak gutxitu egiten du Lasarte-Oriako ingurumen-alderdi desberdinen gaineko eragina edo ingurumenaren iraunkortasunerako irizpideak jasotzen ditu.



Ingurumen-eragina jarduera batek ingurumenean sortzen duen eragina da. Beraz, eragin negatiboak (kaltegarriak) eta positiboak (onuragarriak) izan ditzake horrek.

- Ingurumen-eragin negatiboa: 0 puntu
- Ingurumen-eragin ezdeusa: 3 puntu
- Ingurumen-eragin positiboa: 5 puntu

j) **Mantentze-lanen kostua** (5 puntu gehienez).

Proposamenak ez du mantentze-kosturik edo ahalik eta mantentze-kosturik txikiena du.

- % 10etik gorako kostua, urte osoko kostuaren gainean: 0 puntu.
- % 10etik beherako kostua, urte osoko kostuaren gainean: 1 puntu.
- % 5etik beherako kostua, urte osoko kostuaren gainean: 2 puntu.
- Ez du kosturik: 3 puntu.
- Kostuak aurrezten ditu: 5 puntu.

k) **Baliabide propioak erabiltzea** (3 puntu gehienez).

Udalerrian dauden baliabideak (azpiegiturak, materialak, langileak eta abar) erabiliz egin daiteke proposamena. Proposamenaren kostuaren kalkulu horretan udal gastua sartuko litzateke.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 3 puntu.

Gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten proposamenak ezingo dira herri-kontsultaren prozesuan sartu.

25 puntu edo gehiago lortu dituzten proposamen guztien baturaren kostu ekonomikoa udal aurrekontuetan partaidetza-prozesu honetarako berariaz aurreikusitako kontu-saila baino txikiagoa edo berdina bada, proposamenak zuzenean gauzatzeari ekingo zaio. Dena den, kostu ekonomiko hori handiagoa bada, herri-kontsultaren fase berri bat abiaraziko da.

7. HERRI-KONTSULTA

Lasarte-Oriako Udalak, herri-kontsulta gauzatzeari begira, partaidetza-orri batzuk jarriko ditu herritarren esku, eta, horiek behar bezala bete ondoren, udal eraikin desberdinetan dauden herri-partaidetzarako postontzietan sartu beharko dituzte horretarako ezarritako epearen barruan.

Adinez nagusia eta herrian erroldatua dagoen herritar bakoitzeko boto bat bakarrik onartuko da, eta horri begira, bere izen-abizenak eta NAN zenbakia idatzi beharko ditu partaidetza-orri horretan.

Boto-emaileak aukeratutako proiektuei 3tik 1era bitarteko puntuazioa emanez egingo da bozketak; lehentasun handieneko proiektuari 3 puntu emango zaizkio eta puntu 1 lehentasun gutxienekoari. Bozketan parte hartzen duten guztien artetik % 5etik beherako pertsona-ehunekoa lortu duten proposamenak ezingo dira hautapen-prozesuan sartu.

Herritarren artean babes handiena jasotzen duen proposamenari 50 puntu emango zaizkio, eta gainerakoei boto-ehunekoaren arabera puntuazioa emango zaie.



8. ESLEIPENA

Balioespen eta Esleipen Batzordeak puntuazio partzialen (teknika eta bozketa) eta puntuazio osoen zerrendak prestatu eta argitaratuko ditu, puntuazio handiena lortu duten proiektuetatik puntuazio txikienera ordenatuz.

Balioespen eta Esleipen Batzordeak udal gobernuari eskatuko dio ekin diezaiela proiektuak gauzatzeko administrazio-izapideei, puntuazio-ordenaren arabera, aurrekontuetan zehaztutako kontu-sail berezia ahitu arte.